


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko martxoak 25 / IV. urtea / 120. zenbakia

Sanchez-Ostiz, hiriaren idazlea

Iruñeko karriketako kronista amorratua, pertsonaia, izkina, pasadizo eta etxe zaharrez hornitu da beti bere lanetarako; bere poesia, nobela eta saiakera-prosarako. Nafarroako idazle ezaguna gure mugez haratago, Miguel Sanchez-Ostizek zalaparta ederra sortu du 'Las Pirañas' azken nobelarekin, eta askok mendekua ikusi dute lerro artean. Bidaia-riendako Iruñeko gida bat argitaratu berri du Madrilgo Destino

argitaletxearekin —«idazten duena itsasgizon bakar-tia da», zioen 'La provincia negra de Flaubert' liburuan—, eta buru-belarri ari da bere azken eleberriarekin. Intimista, ezkorra askotan, Miguel Sanchez-Ostiz: hiriaren idazlea.



Miguel Sanchez-Ostiz.

OSKAR MONTERO

Etxearen geografia

JUANJO OLASAGARRE

The Man

Erretzeari utzi beharko zion. Medikuek behin baino gehiagotan mehatxatu zuen begi-argiarekin, baina entresa madarikatu hori... hain gaizki zihuan, japoniar kabroi horiengatik ez balitz. Bai, utzi beharko zuen, kosta ahala kosta. Azken begirada ematearengana galdu zitzaion, lotan zetzan maindire arrosen artean, ez zuen ulertzen zergatik arrosak, esana zion ez zuela gustoko kolore hori, emakumeen kontuak pentsatu zuen atea itxi baino lehen.

Jauzi batean sartu zen autoan, berandu zebilen, langileak etorri baino lehenago dena prest eduki behar zuen. Ez zekien nola konbenzituko zituen baina konbenzitu

beharra zuen, hortan zihoakion ohore profesionala, eta bere gizon ohorea, hori batez ere, bere gizon ohorea, gainera jefeeek beregan paratu zuten konfidantza ezin zuen hautsi. Hotz zen kolean baina berak ez zuen nabaritu ere egin, langileei eman behar zizkion argumentuen lurraldean zebilen bere burua. Dena lehendabiziko mugarrira paratzean datza, behin hori lortu ezker aisa ekarriko zituen berera, ez zen beste munduko gauza langile bati igandetan, zenbait igande baino ez, lanera etor dadin eskatzea. Guraso batek bezala hitz egiten zien, berak zekien tonu ohartu eta laztankor horretan, entresa denona da, hau denon artean atera behar dugu aurrera,



krisia latza da, are gehiago gure sektore honetan larri eta estu gabilta; egia zen gainera. Hesi hori gainditu ondoren berez etorriko zen dena.

Entresako medikua etorri zitzaion zortziak aldera berarekin zita bat zuela gogoratzeraz. Gogo txarrean abiatu zen bere konsultara, bazekien zer esanen zion, erretzearena eta lana ez hartzeko hain estu, kirol piska bat egiteko

eta abar eta abar. Medikuen gauzak —pentsatu zuen— emakumeenak bezain ergelak, ezin da jakin nola funtzionatzen duen mediku baten buruak, zientziaren hipotesiak ohea maindire arrosez janzteko kasketaldia bezain galdordegabekoak dira batzutan. Tensioa hartu zion, kolesterola gero, odol analisiaren ondoren zerbait oker bazela sumatu zuen medikuaren aurpegikeran. Iruñera joan beharra duzu oraintxe bertan, bihotza ardailatua daukazu eta lasaigarri batzuk behar dituzu, uste dut ez dela oso larria baina begiratzea hobe litzateke. Ezin zuela, langileekiko batzarra aipatu zion, entresa gaizki zihoala eta langileak igandetan lanera etortzeko konbenzitu behar zituela, horren ondoren, arratsalde aldera joanen zela bere kabuz. Medikuek lasai-

garri batzuk eman ondoren joaten utzi zuen.

Batzarra gogorra izan zen, kabroi horiek ez zuten lanera etorri nahi, makurrena Entresa Komiteko tiki hura zen, erkin zikina, baina azkenean lortu zuen, berak pentsatu bezala joan zen dena, lehendabiziko mugarrira ezarri ondoren aisa eraman zituen bere argumentazioetan barna. Zerbaitearako ikasi zuen Entresa Psikologia Madrilan. Gero bazkalteraz joan zen etxera. Emazteari kontatu zion bere garaitza, dena dela paretari kontatzea bezala zen. Egunkaria irakurtzera zihoala eta sofán etzan zen une batez. Hantxe aurkitu zuen emazteak egunkaria eskuetan. Bihotzekoa esan zuen entresako medikuak. Seguritate Sozialari gasturik egin gabe hiltzeko dotorezia izan zuen. RIP.

XX GURE AUKERAK

MINTZALDIAK

'Latinoamerikako emakumeak' gaiari buruz ariko da gaur, hilak 25, Carmen Sarmiento kazetari ospetsua, Nafarroako Museoaren aretoan. GITE Elkar-teak antolatutako emakumei buruzko zikloaren barruan, arratsaldeko 19.30etan hasita.

'Burujabetza, Autodeterminazioa, Independentzia' izenburupean, mintzaldia eskainiko dute gaur, martxoak 25, Rafa Diez LABeko buruak eta Jose Elorrieta ELAko arduradunak. Euskar-riak antolatuta, arratsaldeko 19.30etan hasiko da, Hizkuntz Eskolako aretoan.

'Zaire: Lobeliak eta gorilak' gaiari buruz hitz egingen du gaur, ostirala, hilak 25, Carlos Iribarren abenturazaleak. Hitzekin batera, diapositiba emanaldia eskainiko du, Nafarroa Kirol Elkar-teak antolatutako emanaldian. Arratsaldeko 20.00etan hasiko da, Elkar-teak Jarauta ka-lean duen aretoan.

ZINEMA

'Daniel el travieso' izeneko pelikula eskainiko dute aste-buru honetan, hilak 26, Tafallako Es-pañol zineman. Larunbatean arratsaldeko seieta eta igandean 15.45ean. Sarrerak ehun pezetan salduko dituzte.

'La Ascension' izenburuko pelikula izanen da ikusgai heldu den asteartean, martxoak 29, Iru-ñeko Olite zineman. Zinema So-bietarraren zikloari amaiera emanen dio filme honek. Arratsaldeko 20.00etan hasiko da.

MUSIKA

'Su ta Gar', 'Lin Ton Taun' eta 'Bizkar hezurra' musika taldeen kontzertua izanen da bihar, mar-txoak 26, Leitzako pilotalekuan. Gaueko 23.00etan hasiko da.

BESTELAKOAK

Euskalerrria Irratiak saio be-rezia antolatu du biharko, mar-txoak 26, goizeko 9.00etan hasi eta 11.00ak arte iraunen baitu Xinguli Mangulu saioak. He-goalde udal ikastolako 5. mailako ikastaldeen osoki egindako saioa izanen da hamarretatik aurrera.

Euskarazko mezak izanen di-ra Aste Santuan Iruñean, urtero bezala, Zangoza kaleko Maristen Elizan. Ostegun Santuan, arratsaldeko zazpietan izanen da euskarazko elizkizuna, Ostiral Santuan 17.30etan eta Larunbat Santuan gaueko bederatzietan.

NAFAR KRONIKA

ANA UNANUE

Balizko dimisioak

Udaberriaren eraginez edo, aste mugitua izan dugu Nafarroan. Lehenengo UPNkoak aztoratu zitzaizki-gun, ondo aztoratu ere. Miguel Sanzek Korellara itzultzeko keinua egin zuen eta bazirudien zeruak lur joko zuela. Lurrikarak gutxi iraun zuen, ordea, Juan Cruz Allik ezin baitu bestea gabe bizi —bizi bai akaso, baina ez agindu—. Hau parek, karakola eta barea, garai batean Felipe Gonzalezek eta Alfonso Guerrak egi-ten omen zu-tena —neuk mokoka eza-gutu ditut be-tidanik— bai-no hobe.

Baina, be-no, ekaitzaren ondotik zer? Ezer gutxi, elkar oso maite eta esti-matzen dute-la, baina al-derdia berre-gituratu egin beharko dutela barne funtzio-namendua aldatzeko. Eta horretarako sasidimisio bat behar zuten? Allik ez zekien UPNren baitan presio taldeak eta azpi-jokoak zeudela bozketa bat galdu duen arte? Zer uste zuen horrek, azken kongresuan bere hitz-jario dotoreari esker ira-bazi zuela, ala?

Ez horixe, jakin bazekien gauza guztiak batzarretara

iristerako ongi lotuak egoten direla, aurreko astean telefono dantza ugari izaten dela eta bezperan ardo gorriaren laguntzaz ixten direla tratuak. Berak ez ditu sekula gogoko izan konspirazio horiek, San-zen esku utzi izan du sator lana, baina oraingoan nahikoa dela erabaki du, betiko lagun minak beste norbaitentzat eta bere

Elorzko etxean Makiavelo, Kimminich, Mounier eta Toff-lerrekin ilustratu ahal izateko. Gainontzeko alderdien funtzio-namendu erosoa —PSNrena, esate baterako: dena aho batez eta muturra okertzen duena, kalera— inportatu nahi du.

Pedro Ruiz de Alegriak ere aipagai izan du dimisioa, baina ez dut uste honek lau lerro



kontra lan bera egin dezakeela ikustean.

Alliri zeharo neketsua egi-ten zaio horrelako huskerien gainean egon behar izatea, bere erreinua ez da mundu honeta-koa. Haatik, datorren urtean hauteskundeak ditugu Nafa-rroan eta zerrendak egin be-harko dira. Lehendakariak ezin du azpijokotan ibili, ordea, igandeak libre behar ditu,

baino gehiago merezi duenik, Jaime Iribarren nola utzi duten ikusi eta gero. Epailiek, noiz-bait, tortura izan dela erabaki-tzen badute dimititu egingo omen du; karguan Fermin Ez-kurak baino gehiago iraun be-harko luke guk horrelakorik ikusteko. Balizko olak burdi-narik ez, balizko dimisioak minik ez, horren esperoan gel-ditzen garenok izan ezik.

ASTEKO PERTSONAIK



Jaime Iribarren
Gazte Kontseiluko presidentea



Jose Maria Setien
Donostiako Gotzaina

Hilko nindutela uste nuen» adierazi zuen joan den asteartean Jaime Iribarren Nafarroako Gazte Kontseiluko presidentea, atxilotu eta gero komisaldegian pasatu duena kontatzean. Berak eta Berriozarko beste bost atxilotuek torturak eta tratu txarrak salatu dituzte, bai Iru-ñeko komisaldegian bai Madrilen. Jakina denez, kontrako kargurik gabe atera zuten Iribarren, atxilotu eta bi egunera. Ondorio txarrak utzi dizkio Goardia Zibilak gazte honi, beraiekin denbora gehiegi ez eman arren. Dardarka agertu zen prentsaren aurrean, eta ondorio psikikoak azpimarratu zituen. «Boltsa bat jarri zidaten buruan, itomena sentitu arte. Biluzik nengoela, kolpeka hasi ziren gorputz guztian eta gero 'bañera' egin zidaten, lurrera erori arte. Ezin nuen gehiago».

Donostiako Gotzaina izan da aste honetan Iruñean, beste pertsonaia famatuekin batera, Sabino Arana kultur elkargoak antolatu duen mintegiaren aurkezpenean. Jose Maria Setienek Berriozarko atxilo-tuei buruz hitz egin zuen. «Demokraziak, tortura galerazteaz gain, tortura zigortu egin behar du» esan zuen, «ez baitut sinesten Estatu garbieran, legedia eta pertsonen eskubideak beti errespetatzen dituzten Estatu puruetan». Bere iritziz, errealitatea «nahikoa uherra» da. Era berean, egungo legedia aldatzearen alde mintzatu zen, atxilotuek behar bezalakoa tratua jasoko dutela bermatzearen. Presoen bergizarteratzea askatasunez egi-ten bada ongi iruditzen zaiola adierazi zuen Setienek, «bergizarteratzea eta kontzientzien askatasuna lotuta daude».

AHAZTU GABE!

EUSKAL JAIA

Euskal Jaia izanen da gaur Na-farroako Unibertsitate Publi-koan, bertako ikasle talde ba-tek, Euskara Zerbitzuak eta Ikasleen Errektoreordetza antolatuta. Aste osoan izan dira ekitaldi ugari NUPen, arrakas-tatsuak gainera, eta Euskal Kultur Asteari amaiera emate-ko izanen da gaurko jaia. Goi-zeko hamarretatik gaueko be-deratzia arte iraunen du. Goiz osoan ariko da Ikasgelategian Unibertsitateko Baratzte fanfa-rra, eta berarekin batera, talo eta txistor sailtzaileak lanean ariko dira; giroa jartzeaz gain, gosaltzeko parada ederra es-kaintzeko. Bitartean, beste eki-taldi batzuk izanen dira Ikasge-lategian: 10.30etan Herri Ki-rolak, NUPeko jendeak parte hartuko duelarik; 12.00etan, Otxadar dantza taldeak saio bat eskainiko du, eta 13.30etan ka-lejira antolatu dute, Ikasgela-tegitik Sarioa, han izanen baita bazkaria. Mila pezetaren truke eros daitezke bazkaltzeko txar-telak, baina dagoeneko amai-tuxeak dira. Bazkalostean, lau t'erdietan, kontzertua hasiko da. Bertan, Exkixu, Balerdi Ba-lerdi eta Tapia eta Leturia tal-deak ariko dira giroa alaitzen, gaueko bederatzia arte.

jenero xumekoak

What do you see, Elias Sarasa?

Zer ikusten duzu, Elias Sarasa? Nor dira agur-tzen dituzun hauek? Son of England, Russ in Russia, black, Dane, Spaniard of Spain, Por-tuguese, Frenchman of France. Egon bizkor, Martzelogradotik.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostira-lera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00eta-ra... 'Karakola segi hola' gaz-teendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elka-rrizketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gai-netik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Ezkaroze

Turismoa arautzeko akordioa

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Nafarroako Pirinioa bilduko duen partzuergo turistikoa osatzeko lehen urratsa eman zen joan zen larunbatean Ezkarozen, arlo honetan diharduten erakunde pribatuek zein publikoek egitasmoa garatzeko batzordea osatzea erabaki baitzuten. Nafarroako Gobernuak antolatutako bileran, Cederna-Garalur erakundeak proposatutakoari oniritzia eman zitzaion, eta Bertizen duela bi urte hasitako esperientziari helduko diote inguruan.

Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa, Esteribar, Erroibar, Artzibar, Agoitz, Irunberri, Auritz, Luzaide eta Orreaga bilduko ditu proiektuak. Inguru handia eta anitza, elkarrekin antz eskasa baitaukate Erronkarik edo Agoitzek kasu, baina irizpide ekonomikoak nagusitu ziren Cederna-Garalurren proposamenari baiezta ematean. «Turismo Partzuergo bat oso garestia da» azaldu du Carlos Garcia Cederna-Garalurrekoak, «eta inguru baten erakargarritasunak badu zerikusirik aniztasunarekin».

BERTIZKO EREDUARI JARRAIKI

Hau da mota hone-tako bigarren proiektua Nafarroan, Baztan-Bidasoako Bertizko Partzuergoaren ondotik, eta esan daiteke honen arrakastak eragin duela, neurri batean bederen, Pirinioetako. Sorrera, baina, guztiz bestelakoa izan da. Baztan aldean bertako erakundeetatik jai-



Zaraitzuko Juntaren Etxean erabaki zen turismoa bultzatzea.

zen asmoa, eta Pirinioetan Cederna-Garalur enpresaren ekimena izan da. Bultzatutako jaiotza, hain zuzen. «Baztanen ikusi izan da turismoan murgiltzeko behar handia, industriaren birmoldaketari eta nekazaritzaren egoerari aurre egiteko. Pirinioetan, ordea, ez zaio hain garbi antzeman, eta geuk bultzatu behar izan dugu». Harrera ona izan dela dio Garciak. «Aurrean paratu genizkien Baztanen lortutako emaitzak, eta baita haiek adina baliabide ez duten beste ingurue-

tako —Leitzaldean, Lizarre-rrian— antzeko asmoak, eta onartu zen batzorde bat osatzea».

Lehendabizko urratsa, beraz, emana dago. Cederna-Garalurrek aurkeztutako proiektuari, gainera, baietza eman zion Madrilgo Futures erakundeak, eta dagoeneko eskaintza turistikoak prestatzeko lanean ari da Cederna-Garalur. Horretarako, Bertizko proiektua kontuan hartuko dela diote, baina, beti ere, ezberdintasunak ahaztu gabe; izan ere, Baztan-Bidasoa inguru nahiko

homogenoa da, ugalde baten luzeran osatuta, eta Pirinioetan iparretik hegorako ibarrak tartekatzen dira. «Horrek estrategia ezberdinak eragingo ditu», diote Cederna-Garalurren.

Inguru honetako egungo eskaintza turistikoa honako hau da: 17 hotel eta ostatu, 15 apopilotxe, sei kanpin, 35 jatetxe eta 72 landetxe. Aurrikuspenen arabera, 1995eko urtarrilean jarriko da martxan partzuergoa eta urte bereko FITUR turismo ferian egon liteke.

Donapaleu

Haragi zatikatzeko enpresa bat jarri da herrian aste honetan

L. ETXEHARRETA / BAIONA

Donapaleun aste honen hasieran enpresa berri bat jarri da herriko haragi ebakitzeko aretoan, PEDAVIA enpresa. Baionan, Forum auzoan zuen lantegia tokiz aldatu du eta Donapaleura etorri dira bertako 30 langileak.

Azken urte hauetan Donapaleuko haragi zatikatzeko lantegiaren bizirik atxikitze borroka luzeak gertatu dira. Udalak Aiziritzeko bidean eraiki zuen lantegi modernoan ibili enpresek ez zuten iraun. SODIVIAM lehendabizi, gero SOPAVIA eta azkenean EUROVIDECK porrot egin zuten eta lekuak hustu egin zituzten. Horko lanpostuen salbatzeko mobilizatzeko inportanteak gertatu ziren.

Amikuze Geroari Bai kolektiboa, Sauveur Baxo buru, hortzez eta haginez borrokatu arren lantegi modernoa hutsik geratu zen. Denbora berean, EDFren bulegoak eta Aduanako zerbitzuek Amikuze utzi zuten. Enpresa berri hau orain jartzen baldin bada ez da dudarik nahikari politiko baten fruitua dela eta hauteskunde garai honetan etortzeak bat edo besteren alde bultzatuko du. Dena den, ofizialki Lassalle auzapezaren eta udal batzarraren lorpena da, hauekin sinatu baita lantegiaren hartzeko kontratua.

PEDAVIA enpresak iraunen duen da denen galdera kezkatia beste hiruren porrotaren ondotik. Azpimarratzen dute lantegiak 40 urte dituela eta ondo finkatua dela Akitanian eta Espainiako ipa-

rraldean. PEDAVIAk adar bat dauka Lonsen, Pabetik hurbil, 65 langilerekin. Baionan oraindik bost lanpostu gordetzen ditu. Lantegiak, abere hiltegien auzoan jartzen denak, abere hilen haragia tratatzen du, honen kondizionatzea eta banaketa eginez.

Donapaleuko unitateak 1.500 tona haragi urtean tratatzen ahaliko du: idi, aratxe, arkumeak. 500 bezero ditu, gehienak kolektibitateak eta ostalaritzako profesionalak, mugaz bi aldeetakoak.

Amikuzen 30 lanposturen sortzea gertakari premiazkoa da. Ustea bada une honetan 'zuzeneko' enplegu hauen alboan, beste batzuk 'bultzaturik' etorriko direla. Jendea husten ari den Nafarroa Behereko iparraldearentzat arnas hartze premiazkoa da.

Lesaka

II. Herri Lasterketa jokoan igandean

LESACA

Igande honetan izanen da Lesakako II. Herri Lasterketa, goizeko hamarretan hasita, eta adin guztietako kategoriatan, Batzoki Elkarteak antolatuta. Izena proba bakoitza hasi baino ordu t'erdia lehenago eman beharko da, eta proba guztietan sariak banatuko dira. Benjaminak —84 eta 85ean jaiotakoak— goizeko 10.00etan hasiko dira, eta 500 metroko distantzia egin beharko dute emakumezkoek, eta mila metrokoa gizonezkoek. Ondoren, alebinak, 10.30etan —1.000 eta 1.500 metro—; infantilak, 11.00etan —1.500 eta 2.000 metro—; eta 12.00etatik aurrera, kadeteak, —2.000 eta 4.000 metro—; juniorrak —4.000 eta 6.000 metro—; seniorrak —4.000 eta 8.000 metro—; eta helduak —4.000 eta 6.000 metro—.



'prêt a porte-a' azaltzeko modurik errazena.

7)Jarauetero estandarra: Monimbo eta Dr. Martinszalea, more, lila eta fuxiaz jantzen da. Ilea, neska bada gena, eta mutikoa bada patillak eta ile motza, edota garondan kima luzeak.

8)Kaldereriar estandarra: Laruzko jantzizale amorratua. Prakak, txupa, txalekoa, eta, deskuidatzen bazara, kuleroa edo kaltzontziloa larruzkoak. Halabeharrez kima luzeak. Mutilak badira patillak.

9)Friskia: Jatorriz 'free climber'. Skijama galtzak, forro polarra eta mendiko botak. Kima luzeen errege-erreginak.

9)Lore Etxeak: Kima zurrutodunetan jaun eta jabe. Jantziek bigarren eskukoak izan edo gutxienez eman behar dute.

10)Dekalogoaren azken puntuan, aholku bat: ez zaitez enroilatu izan, otoi eta faborez; jada aski eta sobera dauzkagu. (...Ez du jarraituko)



Iruñeko Hiria Torneo Itxiaren 9. ihardunaldiko partida. 1994ko urtarrilaren Sean jokatu.

Alon Greenfeld, 2.590 ELOkoa (Israel)—Peter Leko, 2.550 ELOkoa (Hungaria).

1.Zf3,c5; 2.c4,Zf6; 3.Zc3,Zc6; 4.d4,d4; 5.Zd4,e6; 6.g3,Ac5; 7.Zb3,Ab4; 8.Ag2,d5; 9.d5,Zd5; 10.0-0. Ikus koadroa. Txuriek amua jarri dute, beltzen posizioaren oreka apurtzeko. Atzera egitea ez da samurra. Beraz, aurrera joko dute beltzek. 10..., Zc3; 11. Dd8 xa,Zd8; 12.c3,Ac3; 13.Gb1. Oso ahula da 'b7'ko peoia. Hortik gaztelua sartzea arrisku handia litzateke.


13...,Ad7; 14.Zc5,Ac6; 15. Aa3. Jokaldi honekin, endrokea galerazten da, eta erasorako aukerak sortu. Bestela, 15...,0-0; 16.Zb7. Beltzak estuasunetan daude. 15...,b6; 16.Ze4,Ae5; 17.fg-d1,Gc8; 18.bG-c1,f5; 19. Zg5, Af6; 20.Gd8 xa. Alfilarekin ezin jan, 'Gc6' jokaldiagatik. Kolpe gogorra, erabakiorra, izan da. 20..., Ed8; 21.Zf7 xa,Ee8; 22.Zh8,Ad7; 23.Gc8 xa,Ac8; 24.Ac6 xa,Ad7; 25.Ad7 xa,Ed7; 26.Zf7,Ec6; 27.f4,Ed5; 28.Ef2, b5; 29.Ee3,a5; 30.Ze5,b4; 31. Ab2,a4; 32.a3,a3; 33.Aa3,Ae5; 34.e5,Ec4; 35.Ab2,g5; 36.h4,h6; 37.g5,g5; 38.Ef3,Eb3; 39.Aa1, Ec4; 40.Ab2,Eb3; 41.Aa1,Ec4; 42.e4,Ec5; 43.Ab2,Ec6; 44.Aa3, Ed7; 45.Ac1. Beltzek amore eman zuten. Txuriek zuloa ikusi, eta ederki aprobetxatu zuten, beltzen posizioa sendoa ez zela ohartuta.

Greenpeaceren II. hamarkada

Jadanik 21 urte pasa dira pertsona batzuk naturaren egoeraz kezkatuak, arrauntzi batera —Phyllis Cormack— igo eta debekatutako zonalde batera sartu zirenetik, bere presentziaren bidez Amchitkan (Alaska) egiten ari ziren frogak nuklear batzuk gelditzeko asmoz. Pertsona hauek, hasiera batean 'Olaturik ez egin Komitea' osatu zuten, baina geroago izen sinpleago eta zabalago bat hartu zuten: Greenpeace (Bake berdea euskaraz). «Bakea nahi dugu eta berde izatea», esaten zioten prentsari.

Phyllis Cormack-ekoek erabilitako borroka mota hau arrakastatsua izan zen, eta gizartearen ondorio izugarria izan zuen. Nahiz eta espedizioak porrot egin zuten, eta lurrera bere helburua burutu gabe itzuli, itsasoaren egoera txarrentzat, ontzian zeuden bi erreportari bidaia honen irudiak egunkarien lehen orrialdeetan egoitea lortu zuten. Horrela jendea Amchitkan gertatzen ari zenaz eta bere arriskuez jabetu zen, eta gizartearen presioak Estatu Batuek irla honetan egiten ari ziren frogei uko egitea lortu zuen. Hortik aurrera, Greenpeacek beti erabili ditu ekintza zuzenak ez biolentoak, naturaren aurkako erasoak salatzeko bide nagusi gisa, erasotzaile eta erasotzaileen artean jarritik, eta iritzien publikoaren eta gobernuaren arreta bereganatuz komunikabideen bitartez.

Atmosfera eta itsasoak izaten dira eraso handiak dituzten 'inoren lurraldeak', frogen zelaia eta nazioarteko zaborteia. Greenpeace-k ere atmosferaren aldeko ekitaldietan parte hartu du, orokor bezain larriak diren gaietaz arduratzen: euri azidoak, berotegi efektua eta ozono geruzaren suntsipena. 70ko hamarkadaren bukaeran, Holandak eta Ingalaterrak Atlantiar fosan bere ekintza nuklearren hondakinak botatzaren zituzten. Greenpeaceren lantza baten gainean itsasuntzi batek botatzaren zituen bidoi erradiaktiboak irudiek munduari bira eman zioten. Kanpainaren bost urte iragan ondoren, Londresen egindako hondakin toxikoen konbentzioan bi urtetako moratoria bat ezarri zuten hondakin toxikoen tzako, gero 85ean betiko ezarri zena. komunikabideei Greenpeace-koek helerazi zizkieten fokakumeen hilketaren irudiak jendea hunkitu zuten. Urte asko pasatu zituzten Greenpeaceko bolondres batzuek zutik, izotzaren gainean, untziak pasatzen utzi gabe, beren gorpuekin fokakumeak estaltzen edota kalterik gabeko margoekin



Xabi De Miguel

(BARAÑAIN)



beraiek larruak margotzen, komertzial interesak galtzeko. Azkenean, 1983an, Europako Komunitateak mota honetako larruen inportazioa debekatu zuen.

Greenpeace herrialde berrietan ezarri zen eta kanpaina egin zituen, baina lehendabiziko ekintza horrek —Phyllis Cormackena— zutik zirauen, oraingoan Itsaso Barean. Morurea atoloian egiten ari ziren frogak nuklearrak gelditzeko asmoz. Orduan, Frantziako agintarien biolentzia ikusgarria gertatu zen Greenpeace-ren 'Vega' itsasuntziaren gainean, 1972-73an egindako lehen protestatan. Baina inork ez zuen espero 15 urte geroago gertatuko zena: 'Rainbow Warrior' itsasuntzia hondoratu zuten Auckland-en (Zeelanda Berria), kaiaturik zegoenean. Langile bat, Fernando Pereira ar-

gazkigile portugaldarra hil zuen. Gertakizun honek Greenpeaceren historia markatu zuen, eta bere ekintza, helburu eta filosofien zabalpen azkarra eragin zuen, baina prezio oso handi baten truke. Orain, beste 'Rainbow Warrior' bat Itsaso Barean zehar dabil, eta Frantziako frogak nuklearen aurkako kanpainak zutik dirau.

1986an Medeterraneoko defentsaren kanpaina hasi zen, eta 1987an Antartidan Greenpeaceren 'World Park' basea jarri zuten. Taldeak, hala ere, jarraitu zuen lanean arazo konkretuekin, eta 1987an 'Nuclear Free Seas' ('Itsasoa desarmatu' euskaraz) kanpaina hasi zen, itsasoan egindako frogak nuklearen aurka eta edozein itsasoan

itsasuntzi nuklearrak ez egotearen alde. Orain arte itsaso eta ibai ugariak gure zibilizazioak sortzen dituen hondakinaren zaborteia bezala erabili dira, denona den ura zikinduz, gure planetan bizitzeko ezinbestekoa den ura zikinduz.

Bigarren hamarkadan debate ekologikoak oso ugariak izan dira, baina ekintzak mahai batzuen gainean geratu dira. Dena den, jendearteko sentsibilizazioa eta iritzien kritikoa ugari da, eta hori oso positiboa da. 21 urte hauetan, Greenpeace oso azkar hedatu da. Baina naturaren aurkako erasoak abiadura handiago batean biderkatzen dira. Greenpeace, beste talde ez gobernatu, eta pakea eta planetaren osasunaren alde borrokatzen dugunon pertsona guzti guztien laguntza beharrezkoa da oraindik.

JUANTXO URDIROZ

Jon Mirande (II)

1947tik 1952ra bitarteko horretan idatzi zituen bere poemak Mirandek. 1959. urtean den denak galduta dauzka eta bere lagun leiala zen Peilleni esker berreskuratu zituen. Koldo Mitxelena 'Egan' aldizkarian Ana Franken egunkariaren atal bat argitaratu zuen, Miranderen nazionaltasuna uxatzeko. Bestalde, esan behar da sukaldean ez zela oso ongi moldatzen. Ez zen Jon Mirande gauza ezta arraultze bat ere frijitzeko. Baionako urdaiazpikoa, edonongo gazta eta alkohola ziren bere elikagai nagusiak. Bere aita hiltzerakoan etxetik aldatu beharrean geratu

zen, pisua Errepublikarena bait zen. Etxe berrira eraman zizkion altzariak eta aldaketa egunetik zortzian, adiskide bat bisitatzen joan zitzaion etxe berrira. Eskailerako tranpan aurkituko zuen, ohegain batez inguratutik. Ez zen gauza izan ezer ukitzeko, eta are gutxiago bultoa bainera sartzeko. Beraz, zortzi egun eman zituen jan gabe, edan eta edan, eskaileran.

Lo osaketa bat egin zuen Pitieko osasun-egoitzan. Hortik ateratzean guztiz bestelako gizona zen, adinez hogeitaz zaharragoa. Bizian 'Haur Besotakoa' kenduta, ez zuen deus ere



Ez usteak
zure atean joka

Hil berria

zegoelarik,

Lafittek esan zuen:

«Il était le plus

grand d'entre

nous...».

argitaratu, eta liburu hori ere bere zahartzaroan. Aupazko gutunen bat jaso bide zuen, baina inola ere arbuatu zuen euskara berriro besarkatzeko modukorik. Gero eta gaizkiago egiten zuen lo. 1972. urtean Zuberoara joan zen berri ere. Bere herriko eliza apaiz marxistarekin horniturik aurkitu zuen, gose-greban. Etsi-etsita itzuli zen Euskal Herri. Pennaod lagunari zera esan zion, une hartan TNT-a izanez gero eliza lehertuko zukeela, kristau bilau horiek banean. Ez zen esposatu, aukera bat baino gehiago izan arren. Senarraren irudia ez zuen gogoko, antza denez. Bere hondar bihozlaguna Louise Bleny Jon Mirande bezain mozkortia zen. Hari komentatu zion mundu

honetatik ahalik eta agudoen alde egiteko asmotan zebilela. 1972ko abenduaren 28an bere buruaz beste egin zuen, hurrean, botikaz gainez eginda. Jon Etxaidek neke du sinisten suizidioarena. Bere arrebak elizkizun giristinoak prestatu zituen, Jon Miranderen gorpua ehorzteko. Hiletan apezak bereak eta bost bota zituen Miranderen kontra. Bat baino gehiago lekutu zen. Thiaiseko kanposantuan ehortzi zuten. Harekin batera, arrebak bere eskuizkribu guztiak bota zituen, eta liburuak saldu. Hil berria zegoelarik, Lafittek esan zuen: «Il était le plus grand d'entre nous...». Gil Berak dioenez, ezinbestekoa zen Mirande hilik egotea hori esan ahal zezaten.

Altsasuko haurrek zoriontsuak izan behar, zoriona amets egiteko ahalmenarekin lotuta baitago. Eta ipuina da amets egiteko biderik laburrenetakoa, behintzat haurtzaroan. Horregatik, ostiralero, liburutegian, zoriontasunerako bidea zabaltzen dute bi ipuin kontalarik, erdaraz eta euskaraz.

Kontu kontari

A. BARANDIARAN / **ALTSASU**

Ipuin kontalarien esperientzia, Nafarroan, Faltzesen sortu zen, duela hiru urte eta bertako antzerki talde baten eskutik, baina Altsasun errotu da indartsuen, bertan lortu baitira maiztasuna eta haur kopuru handienak. Bi herri horiez aparte, egun Martzi-llako eta Bianako liburutegietan ari dira kontu kontari, eta Nafarroako Liburutegien Sareak zentro guztietara zabaltzeko asmoa dauka.

Francis Arregik urtebete eman du dagoeneko Altsasuko liburutegian, gero eta entzule finkoagoak dituela. Hasierako egunetan hogeit bat haur azaltzen ziren ostiralero, arratsaldeko zortzietan, ikuztegi zaharreko eraikinean dagoen liburutegira, baina egun 45-50 neska-mutilek betetzen dituzte gelan paratzen diren aulkiak. Dena sortu zen lagunen artean liburutegia berpiztu beharra aipatu zenean. «Iruditu zitzaigun ipuina bide polita izan zitekeela, eta horrela hasi ginen», dio. Bideak arrakasta handia lortu du, eta Francis horren garrantziaz mintzo da. «Hasieran ez, baina denboraren poderioz jabetu naiz zein garrantzitsua den irakurtzera bultzatzea, liburutegia erabil dezaten animatzea, eta baita entzuten irakastea ere... Ipuina oinarritzakoa da, hasieran uste nuen baino askoz ere gehiago».

KANDELEN ARTEKO GIROA Giroak ere badu zerikusia, eta bi baldintza paratu zituen haste-hastetik Francisek: gurasorik ez, eta giro misterio-tsua. Argiak itzalita eta kandela artean, haurren eta bere arteko «konplizitatea» sortu dela dio ipuin kontalariak, eta amaieran abestiak kantatzen dituzte. Bere ustetan, ipuin guztiak baliagarrak dira haurrei azaltzeko, baina garrantzitsuena, kontalariaren gustakoa izatea. «Gustakorik ez badut, berehala sumatzen da kontatzeko eran, eta ezin dut. Hasieran banuen izugarritzko arazoa maitagarrien ipuinekin, sexistak zirela eta ez zirela... baina gero konturatu naiz aspalditik datorrigun ahozko tradizioa dela, eta nirez naizela inor hori juzkatzeko. Gainera, ipuin horiei buruzko analisiak irakurri ditut, eta orain badakit haurrek ez dutela hartzen helduek bezala, beste esanahi bat ematen dietela. Orain izugarri gustatzen zaizkit maitagarrien ipuinak». Urte honetan 90 bat ipuin kontatu dituela dio, denak jatorrizkoak, «ezer asmatu ga-

be», eta harrobia agortzen ari zaio baina Sakanako ahozko tradizioan murgiltzeko asmoa dauka orain.

EUSKARAZKO SAIOAK HASI BERRIAK Edurne Larrazak 90 ez baina 12 bat ipuin

kontatzeko aukera izan du orain arte, joan zen ostiralean egin zuen saioa kontuan harturik. Hasi berria mundu honetan, Kima taldearen ekimenez euskarazko ipuinak kontatzeari ekin dio toki berean, bi astetik behin. Berari ere, ipuinak izugarri gustatzen zaizkio, eta haurrak, berdin. «Etxean beti izan dugu irakurtzeko ohitura handia, eta nik betidanik ezagutu ditut ipuin liburuak». Kontatu zuen lehendabizikoa, gustukuena, jakina. «Globo batean igotzen den katu frantziarraren istorioa da, eta Ingalaterrara eramaten du haizeak. Ipuinak herrira itzultzeko egiten dituen ahalagin guztiak kontatzen ditu».

Nortasun ezberdinei ipuinak kontatzeko modu ezberdinak dagozkiela eta, oraindik haurrekin gustura egiteko modurik ez du aurkitu Edurnek. «Zailena da ni kontzentratzea, haurrak ez baitira geldirik egoten. Hala ere, ezagutu bezain pronto lasaigo egonen dira». Egun 20 bat haur joaten zaizkio saioetara, eta ordu erdikoak egiten ditu. Denbora horretan hiruzpalau ipuin kontatzeko astia izaten du eta denak

motzak, «luzeekin gehiegi nekatzen direlako, eta haria galtzen dute».

Bakarrik bi kontalari dira eta gehiago nahiko lukete. «Primerakoa izango litzateke haurrak adinaren arabera banatu, eta nahi adina ipuin eduki, saio ezberdi-

nak egiteko» azaldu du Francisek «baina seguru nago gutxi barru asko izango garela». Ametsen erresuma.

«Nik badakit hori...!»

A.B. / **ALTSASU**

■ Ostiralero, arratsaldeko zazpietan, Altsasuko liburutegia hustu egiten da. Husten da irakurle eta ikasle, eta hurrez betetzen. Aurpegian ilusioaren marka daukaten hurrez. Arrapaladan esertzen (?) dira prestatutako aukietan, aurrera begira, eta ipuin kontalariak kandelak pizten dituen bitartean, argiak itzaltzen dira. Giroa, misterio-tsua eta isila. Ipuinen giroa.

«Zaila da beren arreta ordu erdiz zeureganatzea, eustea», dio Edurnek, «eta segituan hasten

dira zirika». Horregatik edo, lehen momentutik haurrak lasai daitezen saiatzen da, gogoz, kontalaria. Batzuek, badaezpada ere, liburuak hartu dituzte, eta kasu handiagoa egiten diete marrazki dotoreei neskari baino. Irakurtzen hasi bezain pronto, baina, isiltasuna nagusi. «Ikastola batean gertatu zen...». «Nik badakit hori...!», marijakintsuren aurpegia daukan neskak... Sei eta hamar urte bitarteko neska-mutilek azkar asko erreparatzen diote ipuinaren hariari, baina batzuek gustukoegi ez, nonbait, eta minutu bat pasata

hasiak dira mugitzen, txandal arrosaz jantzita dagoenari zimikoak egiten, edo kontu kontari belarrira. «Zer egin behar dugu arratoiekin...?» jarraitzen du ipuinak, eta, aulkien atzetik: «Honek jo egin nau!».

Bigarren eta hirugarren ipuinekin mugimendua gero eta handiagoa da, eta Edurnek erlojuari begiratzen dio. Bost minutu besterik ez. Marmarra gero eta ozenagoa da. «Bukatzea nahi duzu?». Batek ezetz, baina gehienak altxatu dira, eta abestiak nahi dituzte. Amaitu da ipuin saioa. Gero erdarazkoa dator.



«ELAk gora egin du etengabe»

ANA UNANUE / IRUNEA

EGUNKARIA.— Nola aurkitu zenuen Nafarroako ELA, duela ia 14 urte, eta nola utzi duzu?

JOSE IGNACIO SUESKUN.— Gauzak asko aldatu dira, eta ez ELAn bakarrik, sindikatuen mugimendu osoan ere bai. Ni heldu nintzenerako ELAk emanak zituen lehen urratsak, tajutua zeukan gero hartuko zuen bidea. Garai hartan nugu-

«Gobernuak, enpresariak eta UGTk oso muntaia bitxia egin dute eta CCOO uzten dizkioten ogi apurretatik bizi da».

dena besterik ez da existitzen eta, jakina, gu errealtate horretatik kanpo geratzen gara.

EGUNKARIA.— Nafarroan egiten den sindikalismoa ez al da nahiko motela EAEkoaren aldean?

SUESKUN.— Kontuan izan behar da industralizazioa Nafarroan Bizkaian eta Gipuzkoan baino berantiarra izan dela, Arabakoaren antzera. Horregatik, hemen 60-70etako hamarkadetan artean pil-pi-

eratu zen eta izpiritu korporatibistarekin, gainera. Enpresariak, sindikatuak eta Administrazioa daude bertan, denek botoa dutelarik. Europa osoan ez dago horrelakorik. Gainera, hor bi sindikatu bakarrik dute partehartzea eta gu ez gaituzte errekonozitzen. Pluraltasun eta demokrazia falta nabarmena da.

EGUNKARIA.— Zer deritzozu UGTk eta CCOOk hartu duten bideari?

SUESKUN.— Hemen UGTren eredia nagusitu da, botereari oso lotua eta zeharo korporatibista. Fondo publikoetatik bizi dira. Gobernuak, enpresariak eta UGTk oso muntaia bitxia egin dute. Eta CCOO anbigutasunean mugitzen da, berez kultura horretakoa ez izan arren erakundeetan txoko bat utzi diotelako. Horrela bigarren sindikatu gisa azaltzen dira eta geratzen zaizkien apurretatik bizi dira.

EGUNKARIA.— Egia al da CCOOekin gero eta okerrago moldatzen zaretela?

SUESKUN.— Ez nuke hainbeste esango. Gora-beherak izan genituen iaz, EAEn enpleguaren aldeko kanpaina hitzartu genuenean ELA, LAB eta CCOOk. Nafarroako CCOOn azpijokoak izan ziren hemen pareko ezer egin ez zedin eta azkenean UGTekin beste akordio bat izenpetu zuten, ize-nez enpleguaren eta inbertsioaren aldeko, baina hutsa edukiz. Orain galdetu beharko genieke zer lortu duten horrekin: deus ez, gure aldarrikapenak eta mobilizazioak geldiaraztea besterik ez, hutsaren truke.

EGUNKARIA.— Zer-nolako emaitzak izan ditu LABen eta ELAren arteko lankidetzak?

SUESKUN.— Onak, niretzat esperientzia pozgarrienetakoa izan da bi sindikatuon estrategia bateratua. Nahiz eta nork bere ezaugarriak dituen, konprometzu bera dugu euskal langileekiko: lan esparru propioa eta tokian tokiko tresnak bultzatzea, hain zuzen, autogobernuaren bidean beste urrats bat emateko.

Jose Ignacio Sueskun


ELA-KO
ARDURADUN OHIA



SOSLATA

Sindikalismotik Administrazioa

Jose Ignacio Sueskunek hamahiru urte t' erdi eman ditu Nafarroako ELAko arduradun gisa. Joan zen astean dimisioa aurkeztu zuen, arrazoi pertsonalengatik, eta Jose Mari Otaegik hartu du bere kargua. Sindikalismoan buru-belarri sartu zen arte Sarion aritu zen 47 urteko iruinseme hau, ingeniari indusiala irakasten. Geroztik bere ikastetxea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren baitan gelditu denez, Administrazioan gorde diote lanpostua eta bertan ariko da aurrerantzean.



JOXE LACALLE

si ziren batzarrak, koordinakunde gisako elkarteak, baina ELAk mugimendu egituratu baten aldeko apustua egin zuen. Bat-bateotasuna gainditu behar zelakoan, egituraketa iraunkorra nahi genuen, enpresa guztietan indar egiteko modukoa. Ekonomi krisia bazetorrela antzeman genuen eta Nafarroako gainontzeko sindikatuak ere krisian zeuden. ELAk, berriz, ez du krisirik izan, dena haztea izan da eta gora egin du etengabe.

EGUNKARIA.— Zein izan da azken urteotako lorpenik azpimarragarriena?

SUESKUN.— Horixe agian, etengabe hasi garela. ELAk ez du hauteskunde beharrik bere indarra neurtzeko, bere neurgailua militantzia da eta, azken

hamalau urteotan, 1.000 militante inguru izatetik 5.500 izatera pasatu gara.

EGUNKARIA.— Eta lortu gabe gelditu dena?

SUESKUN.— Demokratizazioa. ELAk, Nafarroan % 15eko ordezkartza izan arren, ez dauka lekuri erakundeetan. 1987. urtean bota gintuzten, Gabriel Urralburu sozialista agintean zegoela, eta orduz gero erabat zokoratuak gaude. Badirudi aurreko gobernuak ez zuela gogoko gure jarrera kritikoa, eta honek ere ez du presa handirik ezer konpontzeko. Araudia aldatu eta gure egoerari irtenbideren bat emango ziotela agindu ziguten, baina zain segitzen dugu. Gainera, zenbait komunikabidetan erakundeetan gertatzen

lean zeuden mugimendu asanblearioak. EAEn, berriz, sindikalismoa egituratuagoa zegoen ordurako, gerra aurreko tradizioa zuten eta. Nafarroan ere bide horri segitu diogu, baina beranduago. Eragina izan du, halaber, UGTk eta CCOOk egin duten sindikalismo motak. Enpresetan erroto beharrian, errazegi eman diote amore Madrili, lan hitzarmenen kontuan kasu. Itun kolektiboa langileen lorpen bat da eta guk hemen bertan negoziatu nahi dugu. Haatik, Madriler ari nahi dute UGTk eta CCOOk, EAEn pentsaezina litzatekeena.

EGUNKARIA.— Nafarroako Ekonomi eta Gizarte Batzordeak ere ez dirudi eraginkorra.

SUESKUN.— Oso berandu

NOSKIJATOR

© Zaldi Enoak



Unibertsitateetako irakaste, politiko eta idazle talde batek kritika egin dio Euskaltzaindian, euskararen erabilera okerragatik zigorrak jartzeko hartutako erabakiak.